

GARMENDIAK

Vesubio-ren izena Gorbea-ren baizen sarri entzun izango dabe gure irakurle geienak.

Garmendia (batzuk *sutokaria* esan dabe) esaten iako garretan egon oi dan mendiari, erderaz *volcan* esaten iakanari. Vesubio dala uste dogu entzute andiena daukana. Badagoz Sicilian, Islandian, Canarias-en da beste toki askotan bere. Euskalerrian bere tšikiren bat ezautu eida; baiña antšina, liburuak egiten iñor asi-orduko.

Serantes deritšon Portugalete-ondoko mendi zorrotza garmendia izanikoa eida. Gaur bere gure ondartzetan sarri aurkituten dira garmendi-arriak (*pie-dras volcánicas*), arin ariñak, pota legezko zulotsuak. Arri orrek eztot uste Euskalerriko antšinako garmendietakoak direala, batzuk baietz uste izanarren. Itsa-soaren ondoan, lur-ganean legez, mendi, garmendi, zelai ta aranak dagoz; da arri orrek itšas-azpiko garmendietakoak izango edo dira.

IZKIRIMIRIAK

Berbako gizona.—Astokiñoren itzartea.—Arrautzadun bat.—Irakur-la errimeia.—Astruziatsua.

Baserritar bat, langiñe errimeia, udan *trozista* Burgo-aldean da neguan etše-aldean iñaro alogereko ibilten zana, agertu zan etšagun eukitsu edo aberats bategana, esaten eutsala:

«Iauna: zuk geitu (1) deustazula dirauste ta zer bear dozun iakitera etorri naz.

—¿I az Premiñ *troziste*a, negura-ekzero alogerean gaur etse baten da biar bestean ibilten azana?

—Bai bat, neu naz.

—Katigu ezaago, zeregin askotšü dago oraingo aldion gurean, da ator.

—Ezta tšarto esana; baja, parkatu, baja nik nabilen tokietan aurretiaz artuten dot ilebeteko alogera.

—¿Oriše dok ona! ¿Ta il orretan alogera artu ta gero ilten baaz?

—Iauna: berbako gizona naz. Ez bildur izan: «enaz ilgo» esaten badot, enaz ilgo. Eun bidar aurretiaz artu dot alogera ta eun bidar ilgo enazan berbea emon dot eta enaz bein bere il.

* * *

Astokiñori etše bat erakutsi eutsen bein, ondo arkolaua edo iantzia. Gauza guztiakaitik emoten eban eritšia: eskaratza, arrizko salea (2) eukalako, otzegia izango zala; gizategi edo *saloia* gauza ederra zala... Gizategiko lo-gelara eldu zireanean, «zetarako da au» itandu eban oe-ondoan dingilizka egoan *borla* bategaitik; eta iñori erantzuteko astirik emon barik «a! badakit zetarako dan, esan eban: itzarri edo esnatu nai dogunean, *borla* onetšeri tenk egin da tšilin tšilin tšilin io ta lotatik *akordaten* da. ¿Ezta alan?»

* * *

«¿Arrautzok zindoak etedira gero? itandu eban azokan andra batek.

(1) Arratia ta Tšorierritarrak *geia* esaten dabe beste Bizkaitar geienen *deia* esateko.

(2) *Sala* euskeraz *gizategia* esan oi da. Erderazko *sala* euskeraz *gizategia* esan oi da.

—¿Ustelik noz saldu etedot? erantzun eban arrautzadunak.

—Lengo iñean erosi neutsuzanak, egia esan bear da ta, guztiak izan zirean zindoak.

—Bada, ene andrea, aretšen lagunak dira onek, bat batera mundura etorriak.

* * *

Legegizon gazte batek auzitegi baten norbaiten alde berbaldi edo *diskursoa* egin bear eban; eta berbaldun geienak legez, polito egin bearren egin bearraz, asi zan esaten:

«Sortitzaren (1) liburuan irakurten dogu...

—Zein orrialdetan?» itandu eutsan, *lapiza* eskuetan ebalá, auzitegiko buru edo *presidenteak*.

* * *

Itšasontzi andi baten udako gauaro ederrean *mozo* ta *marinero* batzuk zerura begira ta eztabaidan zarataka egozan: batak au zala ta besteak ori zala. Ta guztia zan erdaldunak esaten daben *kometá* edo izar bustandun bat. Ontziko nagosiak, zetan ziarduen iakin nairik, ots egin eutsan bati ta itandu eutsan:

«Batši ¿zer darabilzue zarataka ta gora begira?

—¿Beren moduko izar bat agertu da zeruan, da aretšeri begira gagoz?

—¿Zer da edo zelangoa da ba izar ori?

—Batzuk guda edo *gerrea* dakarrela, beste batzuk izurri edo *pestea* dakarrela... ¿Nori siniztu? *Nostramok* (2) barriz atsoen ipuñak direala orrek diño; ta *astruziatsua* da *Nostramo*.

—¿Berak zer uste iok ba?

—*Nostramok* diño ze beste izarrak geldi dagozala, baiña orrelakoak batera ta bestera io Ondarroa ta io Motriku ibiltan direala, ta noizean bein, sagar berdeak iaten doguzanean geu *pirripirrias* legez, izar orrek be sua darioela egoten direala.

—¿Ta zer dala esan dok *Nostramo*?

—*Astruziatsua*.

ESKUTITZ-ORDEZ

1º *Geure lankide edo colaboradoreai.*

Aspaldion iagokuz esaten, euskerazko Iztegi edo *Dikzionario* barria, amar urte onetan esku-artearen darabilguna, argitaratu daigula. Orretan gagoz geu bere. Badakigu zein ondo etorriko litzakigun guztioi iztegi on bat; baiña gei onetan egin bear izan dogun beste lan astean astean lepora baiatorku, agur Iztegia. Mesedez sarritšüagu bialdu daiguela zer edo zertšü.

2º *La Trinchera-ko Pello-ri.* Gure irakurla askok orain-diño eztakie zer dan edo nor dan *La Trinchera*. Astean astean Bilbon argitaratuten dan albistari bat da au, *karlista* zintzoa, euskerari begi ona dautsana, Sakristau *selebre* batzun adiskide andia. Uste dogu *La Trinchera*-ri luzaroko bizia elitzakiola guztiz gogokoa izango; ta ezti-rautsagu iaio-barriai esaten iakena: urte askotan bizi izan daitezala.

Ezin itši geinkez birriratsi (3) бага Pello-k *La Trinchera*-ri dirautsazan berba eder oneek:

«Jarqui, zuc be, jarqui, *La Trinchera*-co nagosi jauna, euscaldunen eta eusqueriaren arerijoai noizik bein, eta zuc bere eta zure astequi jaijo barri orrek jadetziko dozuez euscaldun cindu, cintzo ta benetacoen onetzi ta ezquerrac, euscaldun otz, chaldan eta coldarren esa-mesai jaramonic eguin gabe.»

Eskerrik asko, Pello, gugaitik diñozuzan berba gozoakaitik.

(1) *Sortitza* Larramendik erderazko *naturalezatza* dauko. *Orrialde* erderazko *página*-gaitik esaten dabe askok. Legegizon, *abogado*; auzitegi, *audiencia*; auzi, *litigio*... Berba onek ezaunak dira.

(2) Ontzi askotan kontramaisuari esaten dautse *Nostramo*.

(3) *Birriratsi* esan leike, erderazko *rescribir* edo *volver á escribir* adierazoteko.